

PROFESIONALENTZAKO
Gidaliburua

NAFARROAN **EMAKUMEEN**
KONTRAKO INDARKERIAREN KONTRA
BATERA JARDUTEKO PROTOKOLOA

PROFESIONALENTZAKO
Gidaliburua

NAFARROAN EMAKUMEEN
KONTRAKO INDARKEIAREN KONTRA
BATERA JARDUTEKO PROTOKOLOA

Izenburua

PROFESIONALENTZAKO GIDALIBURUA. NAFARROAN EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKE-
RIAREN KONTRA BATERA JARDUTEKO PROTOKOLOA

Sustatzailea

Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

Egilea

Instituto Navarro para la Igualdad / Nafarroako
Berdintasunerako Institutua

LG: NA 239-2018

AURKIBIDEA

■ AURKEZPENA	7
■ SARRERA	9
■ SIGLEN AURKIBIDEA	10
■ 112 - SOS NAFARROA	13
■ FORUZAINGOA	14
■ IRUÑEKO UDALTZAINGOA	17
■ POLIZIA NAZIONALA	18
■ GUARDIA ZIBILA	20
■ GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA INTEGRALA EMATEKO TALDEAK (BAIT)	23
■ HARRERA-BALIABIDEAK	24
■ EMAKUMEEI LAGUNTZA JURIDIKOA EMATEKO ZERBITZUA (ELZ)	26
■ DELITUAREN BIKTIMEN ARRETARAKO BULEGOA (DBAB)	28
■ EMAKUMEEI LAGUNTZEKO UDAL ZERBITZUAK	31
■ OSASUN ETXEAK	32
■ GINEKOLOGIA ZERBITZUA (IRUÑEKO OSPITALEGUNEA, TUTERAKO REINA SOFIA OSPITALEA ETA LIZARRAKO GARCIA ORCOYEN OSPITALEA)	33
■ LARRIALDI ZERBITZUA (IRUÑEKO OSPITALEGUNEA, TUTERAKO REINA SOFIA OSPITALEA ETA LIZARRAKO GARCIA ORCOYEN OSPITALEA)	34
■ PROZEDURA JUDIZIALA	35
■ GENERO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO ARRETA ETA BABES ZERBITZUA (ATENPRO)	39
■ FAMILIA ELKARGUNEAK (FE)	41
■ ERANSKINAK:	
1. Entzuteko desgaitasuna duten emakumeen arreta eta komunikazioa bermatzeko baliabideak.	45
2. Interpretazio eta bitartekaritza kulturalerako baliabideak hizkuntza ezagutzen ez duten emakume atzerritarrentzat.	45



AURKEZPENA

Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren kontra batera jarduteko profesionalentzako protokoloa duzu esku artean. Honen bidez, 2006an argitaratutako bertsioa eguneratu nahi dugu.

Hamar urte baino gehiago iragan dira, eta denbora horretan aurrerapen eta hobekuntza nabarmenak ikusi ditugu gure Komunitatean emakumeek emakume izateagatik pairatzen duten indarkeriaren kontrako borrokan. Ildo horretan, ezinbestekoa da aipatzea emakumeen kontrako indarkeria-kasuetako arreta eta prebentziorako koordinazio eraginkorrerako erakunde arteko akordioa berriro izana 2010ean; Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legea onartzea (giza eskubideen eta generoagatik diskriminazioaren ikuspuntutik idatzi da lege hori, eta emakumeen kontrako indarkeriaren definizioa zabaltzen du, giza eskubideen nazioarteko arauen arabera); Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legeko ekintza-plana (bertan estrategia global bat egituratzen da emakumeen kontrako indarkeriari kalitateko erantzunak emateko eta 2016-2021 urteetan garatu beharreko jarduketak biltzen dira).

Gida hau emakumeen kontrako indarkeriaren aurreko erakundeen arteko Nafarroako III. akordioarekin batera jaiotzen da. Plan hori berriz ere erreformatu da foru-arauei erantzuna emateko, indarkeria-egoeran dauden emakumeen eta haien seme-alaben arreta eta babeserako baliabide berriak jasoz eta jarduteko protokoloak eta koordinazioa hobetuz.

Helburua da profesionalari ezagutaraztea zer tresna eta baliabide ditugun Nafarroako Foru Komunitatean, eta zer prozedura abiarazi behar diren emakumeen kontrako indarkeria-egoeretan, erakunde arteko akordioa sinatu duten sail eta erakunde guztietan lan egiten jarraitzea zein garrantzitsua den aitortuz, arreta integral eta koordinatua eskaintzeko eta horrela emakumeen eta haien seme-alaben birbiktimitasiaz saihesteko.

Eskerrak eman nahi dizkiet gida hau eguneratzen lagundu duten erakunde, elkarte eta profesional guztiei, haien laguntza gabe ezinezkoa izanen baitzen lan hau egitea.

Mertxe Leránz Goñi

Nafarroako Berdintasunerako Institutuko Zuzendari Kudeatzailea
Erakunde Arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeko Presidentea





SARRERA

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko Nafarroako erakunde arteko III. Akordioa 2017ko azaroaren 24an sinatu zuten Nafarroako Gobernuak, Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusiak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak. Azalpenean erraten denez, indarkeria hori egiturazkoa denez, ezinbestekoa da botere publikoek modu koordinatuan esku hartzea eta prozedura bateratuak ezartzea. Horrela, arreta eta babes integrala bermatu ahal izanen da esparru sozialetik, hezkuntza-aren edo osasunaren eremutik, eta esparru polizial, juridiko eta judizialetatik.

Gida honetan Nafarroan indarkeria-egoeran dauden emakumeek erabil ditzaketen tresna guztiak jasotzen dira, bai eta horietako bakoitzean jarraitu beharreko jarduteko prozedurak ere, emakumean salaketa jarri edo indarkeria-egoeraren berri izaten denetik.

Deskribatutako tresnak eta prozedurak hauek dira: SOS Nafarroa, Poliziak (Foruzaingoa, Iruñeko Udaltzaingoa, Polizia Nazionala, Guardia Zibila), genero-indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldeak, harrera-baliabideak, emakumeei laguntza juridikoa emateko zerbitzua, delituaren biktimei arreta emateko bulegoa, emakumeei arreta emateko udal-zerbitzuak, familia-elkarguneak, etxebizitza babestua eskuratzeko egiaztapenak, osasun-zentroak eta ospitaletako larrialdi- eta ginekologia-zerbitzuak.

Hortaz, gida honek tresna bat izan nahi du, indarkeriarik gabeko bizitza bat lortzeko bideari ekiten dioten emakumeekin dabilzan profesionalen lana gidatu eta errazteko.





SIGLEN AURKIBIDEA

- ATENPRO:** Genero indarkeriaren biktimei arreta eta babesa emateko telefono bidezko zerbitzua
- BAIT:** Genero-indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldeak
- DBAB:** Delituaren Biktimen Arretarako Bulegoa
- FE:** Familia elkarguneak
- FEU:** Familia eta Emakumeen Polizia Nazionalaren Taldea
- ELUZ:** Emakumeari Laguntzeko Udal Zerbitzua (Iruñeko Udala)
- ELZ:** Emakumeei laguntza juridikoa emateko zerbitzua
- EMUME:** Emakumeengan eta Adingabeengan Espezializatutako Guardia Zibilaren taldea
- GBAT:** Gizarte Babesarako eta Arretarako Iruñeko Udaltzaingoaren Taldea
- NUKF:** Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioa
- NABI:** Nafarroako Berdintasunerako Institutua
- OJZ:** Orientazio Juridikoko Zerbitzua
- OGZ:** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
- STG:** Sexu-transmisiozko gaixotasunak
- PJLT:** Polizia Judizialaren Lurralde Taldeak
- VloGEN:** Genero-indarkeria kasuetarako osoko segimendurako sistema





112 - SOS NAFARROA

112 SOS Nafarroa da Nafarroako Gobernuko Barneko Zuzendaritza Nagusiaren larrialdiak koordinatzeko zentrala. Eguneko 24 orduetan jasotzen ditu deiak, urteko egun guztietan, **112** telefono-zenbakiaren bidez, eta arreta integralerako prozesu bat abiarazten du. Horretarako, parte hartzen duten zerbitzuak koordinatzen dira modu bateratu, bizkor eta doako batean.

1. Deia jasotzea:

Genero-indarkeria izan daitezkeen gertakarien berri duen edozein pertsonak eska dezake premiazko laguntza larrialdietarako telefono-zenbakira deituta.

Horrela, honako hauek dei lezakete:

- Kaltetua.
- Biktimaren senide edo lagunek, gertakarien berri badute edo horiek gertatu direlako susmo sendoa badute.
- Poliziak, epaitegiak, DBAB,ek OGZek, etab.

2. Arreta profesionala:

- SOS Nafarroako sistema informatikoan «Genero-indarkeria» izeneko fitxa bat sortuko da beharrezko daturekin.
- Salako buruari jakinaraziko zaio.
- Pertsonak arreta medikoa behar badu, deia 112 zerbitzuan bertan dagoen mediku koordinatzaileari pasako zaio. Bera arduratuko da lehen diagnostia egiteaz eta pertsona dagokion zerbitzura bideratzeaz: Ospitalea, osasun-zentroa, anbulantzia lekuz aldatzea, auzitegiko medikuntza, etab.
- Beharrezkotzat joz gero, gertueneko poliziarri joateko agindua emango zaio (polizia autonomikoak edo udaltzaingoa, baldin badago, eta bestea estatukoak).
- Larrialdietako psikologoa mobilizatuko da, beharrezkoa dela jotzen denean.

- Dagokion barruti judizialeko emakumeei laguntza juridikoa emateko zerbitzua mobilizatuko da (ELZ).

Jarduera horiek guztiak egitean beti errespetatuko da emakumearen borondatea. Esaten badu baliabide horietako bat mobilizatzerik ez duela nahi, ez dira abiarazten, baina beti emango zaio horiei buruzko informazioa.

Dei egin duen emakumeak aholkularitza baino nahi ez badu, hauetakoren batera bideratuko da, kontsulta-orduetan: OGZ, DBAB, BAIT, ELUZ, ELZ, NABI, etab.

3. Jarduketaren amaiera:

Mobilizazio edo alerta horiek egin eta gero, eta arreta medikoa amaitutzat ematen denean edo emakumea ospitalera edo osasun-zentrora eraman denean, gertakaria amaitutzat jotzen da eta artxibatu egiten da SOS Nafarroan.



FORUZAINGOA

Polizia Judizialaren sailaren Brigada Asistentziala arduratzen da emakumeen kontrako indarkeriarekin lotutako gaiak kudeatzeaz eta dagozkien atestatutak idazteaz. Era berean, Tuterako polizia-etxearen arreta-eremuan, polizia-arretaren bulegoak jasotzen ditu salaketak, ikerketaz eta instrukzioaz Tuterako Polizia Judizialaren taldea arduratzen den bitartean. Beharrezkoa bada, laguntza ematen diete Polizia Zientifikoaren Sailak eta Herritarrei Babesa eta Arreta emateko Sailak. Haien jarduera-eremuak Foru Komunitate osoa hartzen du.

1. Eskaera jasotzea:

Emakumeen kontrako kasu batean esku hartzeko eskaera hainbat jatorritatik etor daiteke: biktima bera, SOS Nafarroa, gizarte-zerbitzuak, osasun-zentroak, ikastetxeak, bizilagunak, senideak, etab.

Beharrezkoa da poliziaren bi esku-hartze bereiztea:

- Premiazko esku-hartzea.
- Premiazkoa ez den esku-hartzea.

Premiazko esku-hartzeak berehalakoa izan behar du, eta ondorioz hasiera batean esku hartzen dutenak eta lehen jarduketak egiten dituztenak bertatik gertuen dauden agenteak izanen dira. Ondoren Brigada Asistentzialaren esku utziko dute kasua eta emakumearen arreta, eta hura arduratuko da bere arreta-eremuko salaketen ikerketa eta instrukzioa egiteaz.

Premiazkoa ez den esku-jartzea agente espezializatuen esku geratuko da epaitegi eskudunera eta/edo beste erakunde edo zerbitzu batzuetara bideratu aurretik, eta beti eginen dira ahaleginak biktimaren erreferente polizia-agenteei esku-hartzaileak izan daitezen. Agente horiek biktimen arriskuaren balorazioa egiten dute hasieratik. Horrela, egoki jotzen dituzten babes-neurriak har ditzakete, eta biktimari bere burua babesteko har ditzakeen autobabeseko neurrien berri emanen diote.

Hobekiago uler dadin eta poliziaren esku-hartzea bere

osotasunean jasotzeko asmoz, premiazko egoera batek abiatuko gara. Lehen erran dugun bezala, edozein bitartekoren bidez jakin dezake poliziak delitu bat gertatzen ari dela edo gertatu berria dela.

2. Jarduketa profesionala:

2.1 Esku hartzen duen gertueneko patruilak eskaera jaso duen operatzaileak bildu duen informazio guztiaren berri izan behar du. Helburua zera da, biktima bera babesteko neurriak hartzea, bai eta autobabes-neurriak ere, jarduketa guztian zehar. Fase honetan, komenigarria da biktimarekin harremanetan izatea, patruila berarengana iritsi arte.

2.2 Behin bertara iritsita, esku-hartzeak hiru helburu nagusi ditu:

- Pertsonak babestea, hau da, eraso sufritu duen emakumea eta beste biktima posibleak (adibidez, seme-alabak edo beste batzuk) babestea. Horretarako, erasotzailearengandik bereizi behar dira.
- Delituaren frogak idatziz jasotzea eta gordetzea. Delitua gauzatzeko erabili diren arma edo objektu guztiak konfiskatu behar dira. Etxebizitzaren barruan zein beste leku batzuetan egon litezkeen ustezko delitugilearen arma guztiak konfiskatuko dira, delitua gauzatzeko erabili ez badira ere.
- Delituaren arduraduna edo arduradunak atxilotzea, halakorik denean.

2.3 Delituaren arduradun bat atxilotu aurretik, patruila esku-hartzaileak lehen balorazio bat egin behar du gertakariak gertatu direneko lekuan, bost puntutan oinarrituta, eta kasu bakoitzak dituen ezaugarri espezifikoak ere baloratu behar du:

- Biktimak dituen lesioen garrantzia. Horien larritasunaren arabera, berehala eramango da osasun-zentro batera.
- Etxebizitzako kalteak eta egoera, indarkeria-zantzuak (begizko inspektzioa, txosten argazki-



duna). Gertakarien larritasunaren arabera, Polizia Zientifikoaren agenteek esku hartuko dute.

- Ustezko delitugileak erakutsitako agresibitatea.
- Inplikaturako pertsonekin eta lekukoekin izandako elkarrizketen ondorioak (gertatutakoaren kontaktuzun generikoa).

2.4 Biktimari elkarrizketa egitean, agenteak ahalegin-duko dira segurtasuna transmititzen eta berarekin enpatizatzen, eta berehalako behar eta betebehar atzerazinenak konpontzen saiatuko dira.

2.5 Elkarrizketa horretan ez da beharrezkoa biktimak gertakarien kontakizun zehatza egitea. Nahikoa izanen da kontakizun generikoa egitea, zere gertatu den jakin ahal izateko. Elkarrizketa horretan galde-tuko zaio salaketa aurkeztu nahi duen eta aurretik beste noizbait erasorik jaso izan duen. Era berean, jakinaraziko zaio indarkeria-egoeran dauden emakumeentzako larrialdi-zentrora joan daitekeela, adingabeko seme-alabekin batera, unea horretan beste baliabiderik ez duelako edo biktimen osotasun fisiko edo psikikoa arrisku-maila handian dagoelako.

2.6 Era berean, DBABen premiazko zerbitzu psikologikoaren presentzia beharrezkoa den ere baloratuko da, biktimaren egoeragatik gomendagarria denean eta biktimak onartzen duenean.

2.7 Esku-hartzea Brigada Asistentzialaren esku uztea.

- Premiazko egoera batean esku hartu duen patruilak datu, filiazio, froga eta lekukotza guztiak emanen dizkie agente espezializatuari.
- Horiek biktimari aurkezteak eta babesa, profesionaltasuna eta enpatia transmititzeak komunikazio-bide egoki bat ezartzen lagunduko dute.
- Osasun-etxera eramatea eta laguntzea, aurretik egin ez bada. Medikuen txostena.

2.8 Salaketa jasotzea.

- Biktimari prozeduraren, baliabide judizialen eta horien irismenaren berri emango zaio, bai eta

erabil ditzakeen gizarte-baliabideen berri ere (guxieneko egoera psikologiko egoki batean egon beharko du horretarako), hori guztia Biktimaren Estatutuari buruzko araudia betez jakinarazi behar den informazioaren arabera.

- Barruti judizialaren arabera dagokion emakumeari laguntza juridikoa emateko zerbitzuaren (ELZ) esku-hartzea eskatuko da, salaketa aurkeztu aurretik, bai eta DBABen premiazko zerbitzu psikologikoarena ere.

- Salaketan jasota geratuko dira hura eragin duten arrazoiak eta indarkeriazko beste aurrekari edo gertakariak ere, bai eta indarkeriazko beste gertakari batzuen ondorioz aurkeztutako salaketak eta jasotako arreta medikoak ere.

- Babes-agindua edo kautela-neurriak eskatzeko dokumentua beteko da, hala badagokio.

- Beste neurririk hartzen ez denean, autobabes-neurrien berri emanen zaio biktimari, eta horiek idatziz jasotzen dituen dokumentu bat emanen zaio.

- Zuzeneko komunikazio-bide bat ezarriko da agente esku-hartzaileen eta biktimaren artean. Helburua da berehala ezagutzea beharrezko datu edo gertakariak, unean-unean arriskuaren balorazioa egin ahal izateko.

- Biktimak dituen lesioen argazkiak egingen dira.

2.9 Ondorengo eginbideak.

- Jarraian, poliziaren jarduketan xedea izanen da salatutako gertakarien egiazkotasuna egiaztatzea, gehienbat begizko ikuskapena eginik eta agente esku-hartzaileen, lekukoen, bizikideen, bizilagunen, senideen, lagunaren eta abarren lekukotzak jasota.

- Aldez aurretik biktimak tratu txarrak jasotzen zituela zekiten zerbitzu eta erakundeei horren inguruko txosten bat egiteko eskatuko zaie, egingdako jarduketak jasoz.

- Ustezko erasotzailea ez bada aurretik atxilotu, atxiloteta baloratuko da, eta berarekin egin ahalko





dira ondorengo jarduketak (atxilotuak hartutako eskubideetatik eratorritako jarduketak):

- Erasotzaileak dituen armak konfiskatzea.
 - Aurrekari penalak egiaztatzea.
 - Etxeko Indarkeriaren Erregistro Zentralean jasotako informazioa, inplikaturako pertsoneri eragiten diena.
 - Atxilotuaren deklarazioa hartzea.
 - Atxilotua epailearen esku uztea.
- Agintaritza judizial eskudunarekin bat etorritik (Emakumearen kontrako indarkeriaren epaitegia edo guardiakoa), atestatutako inplikaturako pertsoneri hitzordua emanen zaie, bai eta haren legezko ordezkariari ere.
- Biktimari edo ustezko erasotzaileari etxera laguntzea, kasuaren arabera, bere objektu pertsonalak jaso ditzen.

2.10 Arriskua baloratzea.

- Lehen komunikazioa egiten denetik edo lehen informazioa jasotzen denetik, biktimaren arriskuaren balorazioa egiten da, honako hauek kontuan hartuz:
- Tratu txarren maiztasuna.
 - Biktimaren lesioen larritasuna.
 - Ustezko erasotzaileak erakutsitako agresibitatea, aurrekari penalak, zabalik eta ebazteke dituen prozesu penalak.
 - Biktimak, bizikideek eta beste lekuko batzuek adierazitako indarkeriazko gertakarien larritasuna.
 - Gaixotasun mentalak, alkoholaren edo beste substantzia estupefaziante edo psicotropiko batzuen kontsumoa.
 - Erasotzailearen agresibitatearen ondorioz etxebizitzan edo beste elementu batzuetan eragindako kalteak.

- Biktimak adierazitako beldur edo antsietatearen maila.
- Kautela-neurriak edo babes-agindua bete ez izana.

– Balorazio hori egin ostean, biktimaren kasuan jarraitu beharreko neurri polizialak zehaztuko dira. Horien artean daude:

- Biktimari autobabesari buruzko neurrien berri ematea.
- Erasotzailearen kontrol poliziala.
- Biktimaren zaintza poliziala ordutegi finkoetan (ikastetxera edo lanera sartu eta irteteko orduetan, eskolaz kanpoko jardueren ordutegian, etab.)
- Biktimaren zaintza poliziala egunean 24 orduz.
- Indarkeria-egoeran dauden emakumeentzako zentro batera bideratzea, autonomia-erkidegokan kanpora ere, arrisku oso handia badago.

3. Jarduketaren amaiera:

Kasu guztietan informazioa emanen zaio biktimari DBAB, BAIT, ELUZ eta abarri buruz, bere bizilekuaren arabera, eta hitzordua eskatzeko gomendatuko zaio.

Aldian behin komunikazioak egiten dira biktimekin, gertakarien eta arriskuaren balorazioaren arabera, eta unean uneko arrisku-mailaren arabera babes-neurri egokiak abiaraziko dira.





IRUÑEKO UDALTZAINGOA

1. Eskaera jasotzea:

- Larrialdietako 092 telefono-zenbakian biktimak, seni-deek edo lekukoek egindako eskaera.
- Larrialdietako 112 telefono-zenbakiaren bidez egindako eskaera.
- Biktima polizia-etxera joatea salaketa aurkeztera.
- Indarkeria-egoera hautematea edo halakorik dela susmatzea gatazka batean esku hartzen ari diren agente batzuek.

2. Arreta profesionala:

2.1 Berehalako arreta eraso baten aurrean

- Salaketa aurkeztea gomendatzen da
- Medikuaren laguntza eskatzea gomendatzen da, lesioak badaude, atestatuan lesioen partea jasotzeko. Mediku-zerbitzura lagunduko zaio.

2.2 Salaketen taldea

- Salaketa jasotzea eta atestaturia idaztea.
- Biktimari prozeduraren inguruko informazioa ematea, babes-agindua eskatzeko aukera azaltzea eta eskura dauden baliabideen berri ematea.

2.3 ELZi egoeraren berri emango zaio salaketa jarri aurretik, abokatua bidal dezaten, eta DBABen psikologoaren laguntza eskatuko da, emakumeak eskatzen badu edo bere kasuaz arduratzen ari den poliziak beharrezkoa dela uste badu.

2.4 Gizarte Babes eta Arretako Taldeak (GBAT) lan hauek egingen ditu: biktima babestea, biktimari medikuarengana eta epaitegira laguntzea eta gizarte-zerbitzuekin edo esku har lezaketen beste zerbitzu batzuekin koordinazioa egitea.

Astegunetako ohiko ordutegitik (6:30-22:30) kanpoko premiazko izapideetan, guardiako langileek emanen diote arreta biktimari.

3. Poliziaren jarduketak:

Edozein iturritatik genero-indarkeriarekin lotura izan dezaketen gertakariei buruzko informazio jasotzen denean, gertakariak argitzeko beharrezko jarduketak abiaraziko dira, dagokion atestaturia eginez, biktimak hala eskatuta ala ofizioz, biktimak salaketarik aurkeztu nahi ez badu.

4. Kasuen jarraipena:

Salaketen Bulegoak atestaturia eta arriskuaren lehen balorazioa egin eta gero, kasuaren bilakaeraren jarraipena eta arriskuaren ondorengo balorazioak modu pertsonalizatuan egingen ditu Gizarte Babes eta Arretako Taldeak (GBAT). Horiek egiteko VIOGEN tresna erabiliko da.

Arriskua altua edo muturrekoa denean, badago «alarma-sistema» bat aktibatzeko aukera, Udaltzaingoaren Koordinazio Operatiboaren Zentroaren bidez. Horren bidez, alerta bat sor daiteke emakumearen sakelako telefonoarekin lotuta, eta horrela bere deia lehentasunez jasoko da Zentro horretan, beste batzuen aldean.





POLIZIA NAZIONALA

Nafarroako Polizia Burutza Nagusiaren mendeko Iruñeko Polizia Judizialaren Brigada Probintzialaren Familia eta Emakumearen Unitatea (FEU) arduratzen da bereziki zaugarriak diren biktimei (batik bat, emakumeei) arreta emateaz, salaketak tramitatzeaz, pairatutako indarkeriarekin (batik bat, genero-indarkeria) lotutako jarduketak egiteaz eta horiek behar izan lezaketen babesa emateaz.

Haren eskumeneko lurralde-eremua **Iruña, Burlata eta Atarrabiako udalerriek** osatzen dute.

1. Eskaera jasotzea:

- 112 SOS Nafarroa zerbitzuaren bidez Burutza horretako 091ren salari emanen zaio laguntza eske egindako edozein deiren berri.
- Zentralari herritar batek egindako eskaera, 091 telefono-zenbakiaren bidez, esanaz gertakari larri bat ikusi edo entzun duela edo halakorik gertatzen ari delako susmoa duela.
- Biktima bera polizia-etxera joatea salaketa aurkeztera.
- Indarkeria-egoera hautematea gertakarien kokalkura bertaratutako patruila batek.

2. Jarduketa profesionala:

2.1. Biktimari berehalako arreta ematea, asistentzia medikoa emanez beharrezkoa bada, eta aholkularitza eskaintzea salaketak dakartzan izapide guztiei buruz:

- Bere eskubideei buruzko informazioa ematea eta ekintzak eskaintzea.
- Babes-aginduari, bertan jasotako neurri penal eta zibilei eta hura eskatzeko aukerari buruzko informazioa.

- Abokatu espezializatuaren laguntza eskaintzea (ELZeko abokatua), bai eta doako laguntza juridikoa baliatzeko aukera ere.
- DBABen asistentzia psikologikoa jasotzeko aukera eskaintzea.
- Larrialdi-zentroaren kudeaketa indarkeria-egoeran dauden emakumeentzat, bertara joan nahi badu.
- Erasotzailea aurkitzeko kudeaketak, eta erasotzailearen atxiloketa, egokia denean, biktimaren osotasun fisikoa bermatzeko eta gerora epaitegian azalduko ez dela pentsa litekeenean.
- Prozedura judizialaren hasierari buruzko informazioa, horren ondoriozko ahozko epaiketarekin.
- Arreta jasotzeko osasun-zentro batera joatearen egokitasuna, bertan dituen lesioen txostena egin dezan medikuak, oraindik halakorik egin ez badu, ahal bada kaleko arroparekin jantzitako poliziek lagunduta.
- Eskuragarri dauden gizarte-baliabide guztiei buruzko informazioa (gizarte-zerbitzuak, aholkularitza juridikoa eta psikosoziala).

2.2. Salaketak izapidetzea eta kudeaketak egitea:

- Salaketa jasotzea toki egoki batean, biktimaren pribatutasuna bermatuz. Salaketak Polizia Judizialaren FEU unitateak jasoko ditu.
- Biktimak nahi badu, ELZen laguntza eskatuko da, bai eta DBABen guardiako psikologia-zerbitzuarena ere (112 telefono-zenbakiaren bidez).
- Biktimak lesioak badauzka azalduko zaio beharrezkoa dela osasun-zerbitzuetara jotzea dagoen lesioen txostena lortzeko (beti lagunduko diote bertara talde espezializatutako kideek edo uniforme jantzitako polizia-dotazio batek). Era berean, baimena eskatuko zaio dituen lesioen argazkiak egiteko eta horiek salaketari eransteko.
- Biktima eta/edo adingabeak babesteko eta erasotzailea aurkitzeko kudeaketak egiteko beharrezkoak diren datuak jasotzea.





- Gertakarien kontakizun xehatua.
- Txostenaren eginbidea, honako hauen arabera: aurretiko salaketak edo poliziaren esku-hartzeak, lesioen txostena aurkeztea edo ez, argazkiak, etab.
- Lekukoan eta bizilagunen informazioa jasoko da, gertakarien berri badute.
- Atestatuari erantsiko zaio gertakariak izan direneko lekuan esku hartu duten polizien adierazpena.

2.3. Kautela-neurriak ezartzea, biktimaren osotasun fisikoa bermatzeko:

- Indarkeria-egoeretan dauden emakumeentzako larrialdi-zentrora joatea: biktima zentro horretara laguntzea, bai eta bere etxera ere, objektu pertsonalak jasotzeko.
- Biktimari harremanetarako telefonoak emanen zaizkio.
- Salatutako pertsona antzematea, dagokionean, atxilotzeko eta epailearen esku jartzeko, erasotzaileak biktimarentzako arrisku larria eragin dezakeenean eta delitu bezala tipifikatutako arau-hauste bat egin duenean.

2.4. Guardia Zibilaren Arma eta Lehergaien Esku Hartzeko Zerbitzuari kontsulta eginen zaio, erasotzaileak arma-lizentzia duen eta su-armarik daukan jakiteko. Baldin badauzka, armak kenduko zaizkio kautela-neurri bezala. Gobernu-agintaritzari egoeraren berri emanen zaio, lizentzia erretiratzea egokia den ebatz dezaten.

2.5. Gertakariak izan direneko lekuaren ikuskaritza teknikoa, poliziek begiz eginen dutena, odola edo beste jariakinen baten arrastoak daudenean edo etxebizitzan edo altzarietan erasoaren ondoriozko kalteak daudenean.

2.6. Biktimak ez badu gertakarien inguruko salaketarik aurkeztu nahi eta poliziak horren berri badu, ofizioz jakinaraziko zaio agintaritza judizialari. Kasuaren arabera, eta nahikoa froga-elementu badaude, ofizioz jardungo da.

2.7. Salaketa eskumenik gabeko lurralde batean egiten bada, berdin-berdin emanen zaio arreta biktimari, salaketa izapidetuko da eta gainerako kudeaketak eginen dira. Ondoren, salaketa hori dagokion polizia-indarrari helaraziko zaio salatua aurki dezaten, hura eskumeneko lurraldetik kanpo bizi bada.

3. Jarduketaren amaiera:

- Eginbideak epaitegira bidaltzea, babes-aginduaren eskaerarekin batera, eta atxilotua epailearen esku uztea, egokia denean.
- Babes-aginduen jarraipena egitea, biktimekin etengabe harremanetan egonez.
- Gainerako polizia-indarrekin koordinatzea, beste babes-agindurik badago, horien zaintza egiteko eta betetzen direla bermatzeko.
- Babes-aginduak Madrilgo Artxibo Zentralera bidali behar dira, Polizia Zuzendaritza Nagusiaren artxibo informatikoetan sar ditzaten.
- Agintari judizialek aginduko balute, erasotzaileari etxera lagunduko zaio, bere objektu pertsonalak jaso ditzan eta etxe hartatik joan dadin.





GUARDIA ZIBILA

Genero-indarkeriarekin lotutako kasuei dagokienez, hiru jarduketa-maila ditu Guardia Zibilak:

Lurralde-unitateak (postua)

Lehen berria jasotzen dutenak eta esku hartu behar dutenak dira, horiek baitaude gertuen. Salaketak jasotzen dituzte, esku-hartzeaz arduratzen dira kasu arinetan eta laguntza eskatzen duten kasu larrietan. Biktimen premiazko gertakarien aurrean prest egoteko eta erantzuteko sarea osatzen dute, eta haiek dira egokienak babes- eta segurtasun-neurriak aplikatzeko.

Polizia Judizialaren Lurralde Taldeak (PJLT)

Nafarroaren kasuan, Guardia Zibilaren 9. eremuko Polizia Judiziala da. Badu emakumeengan eta adingabeengan espezializatutako talde bat (EMUME), tratu txarrekin eta/edo sexu-erasoekin lotutako delituen larritasunaren inguruko kualifikazioa eta sentsibilizazio duten profesionalak osatua. Eguneko 24 orduetan dago irekita. Esku hartzen duten lurralde-unitateetako langileei aholkularitza ematen diete.

Ikerketa-taldeak

Guardia Zibilean genero-indarkeriari buruzko espezializazio-maila altuena duen taldea. Emakumeengan eta adingabeengan espezializatutako eskualdeko zein probintziako taldeen egitekoa da biktimen kontrako arau-hauste penal larrienen ikerketa kriminala egitea, poliziaren esku-hartzeak iraun bitartean biktimei laguntza emanez, agintaritza judizialekin harremanetan egonez eta emakume biktimei laguntza ematen laguntzen duten gainerako erakundeekin bitartekaritza-lanak eginez.

Prozedura honen arabera egiten da hori:

1. Eskaera jasotzea:

Hiru modutan izan daiteke gertakarien berri:

- Gertakariari buruzko esanak edo zurrumurruak.
- Biktimaren salaketa, polizia-etxera bertaratuta.
- Patruila baten edo zerbitzua ematen ari diren langileen aurrean egindako ahozko salaketa.

2. Jarduketa profesionala:

2.1. Berehalako esku-hartzea:

- Eskaria lehen bidetik lortu bada, gertakaria egiazkoa den egiaztatu behar da, zeharka bada ere.
- Lekuan bertan lehen balorazio bat egitea, arrisku-egoerari buruz.
- Biktimari jakinaraztea aholkularitza eta laguntza juridikoa (ELZ) eta arreta psikologikoa (DBAB) jasotzeko eskubidea duela.
- Posible denean eta jarraitu beharreko prozedura zein ez dakitenean, telefono bidezko aholkularitza eskatzea langile espezializatuari (EMUME).
- Neurri espezifikoa abiaraztea, biktimaren eta haren senideen bizitza, osotasun fisikoa eta eskubide eta interesak babesteko.
- Biktima beste arrotz batzuegandik isolatzea, indarkeriaren ondorio posibleak murriztearren.
- Berehalako kudeaketei ekiteko aukera emanen duten datuak biltzea (erasotzailea identifikatzea eta atxilotzea, ibilgailuaren matrikula, gertakaria izan deneko lekua babestea...).
- Salaketa ofiziala aurkezteko erraztasunak ematea:
 - Biktimari utziz erabakia hartzen eta berari laguntzeko baldintzak jartzten.
 - Beharrezko kudeaketak eginez salaketa jasotzera joaten dena berehala jar dadin biktimarekin harremanetan.





- Modu argi eta ulergarrian jakinaraziz zer eduki, tramitazio eta ondorio dituen babes-aginduak eta erabil ditzakeen gainerako babes- eta segurtasun-neurriek, eta gizarte-zerbitzuei, biktimarentzako arreta-bulegoei eta koordinazio-puntuei buruzko informazioa emanez.
 - Biktimari eta lekukoei (baldin badaude) berehala hartuko zaie deklarazio xehatua.
- Osotasun fisikoa bermatzeko neurriak ezartzea:
- Akonpainamenduak eginez.
 - Autobabes-neurriei buruzko informazioa/ pres-takuntza eskainiz.
 - Familiaren bizilekuan edo ustezko erasotzailearen esku egon litezkeen armak eta/edo tresna arriskutsuak konfiskatzea.
 - Ustezko erasotzailea atxilotzea eta epailearen esku uztea.
- Ikerketarekin eta froga-bilketarekin bizkor hastea:
- Berehala jakinaraztea kasua hartaz arduratu behar duten ikerketa-unitateei.
 - Jarduketan koordinazioa: ikerketa zuzentzeko ardura hartzen duen pertsonaren jarraibideak betetzea.
 - Osasun-arreta ematea, biktimari osasun-zentro batera eramateko aukera eskainiz.
 - Biktimari jakinaraztea beharrezkoa dela zantzu posibleak (gorputzekoak edo arropak) gertakariak izan direneko lekuan mantentzea.
- 2.2. Salaketa jasotzea eta eginbideen instrukzioa egitea:
- Salaketa onartzea, gertakaria beste polizia-indar baten eskumeneko lurraldean izan bada ere.
 - Biktimari jakinaraztea abokatuaren asistentzia izateko eskubidea duela, berak izendatutako edo ELZen bidez.
 - Berriz jakinaraztea eta gomendioak ematea biktimari, ELZen bidezko asistentzia eta aholkularitzako eskubideari dagokionez (juridikoa eta psikologikoa).
- Biktima atzerritarra bada eta egoera irregularrean badago, jakinaraziko zaio bere egoera arrazoi humanitarioengatik erregularizatzeko eskubidea duela, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunenei eta horien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamenduaren 45.4 a) eta 46.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera (2393/2004 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa).
 - Babes-agindua eskatzea, aurretik egin ez bada eta biktima ados badago.
 - Biktimak erabakitzen badu beste bizileku batera edo indarkeria egoeran dauden emakumeentzako larrialdi-zentrora joatea, datu hori idatziz jasotzea eginbide erreserbatuan, eta epaileari eta fiskalari bakarrik ematea.
 - Salatua identifikatzea, epailearen aurrean agertzea eta adierazpena egitea.
 - Aurretik ezarritako babes-neurririk dagoen egiaztatzea.
 - Biktimari informazioa ematea dituen eskubideei buruz eta erabil ditzakeen baliabideei buruz.
 - Salaketa aurkeztu izanaren ziurtagiria ematea, biktimaren abokatuak, epailearen baimena lortu ondoren, atestatua ezagutu ahal izan dezan.
 - Biktimaren eta haren senideen bitzita, osotasun fisikoa eta eskubide eta interesak bermatzeko neurriak ezartzea.
 - Erasotzailea atxilotzea eta epailearen esku uztea.
 - Harremanetarako telefono iraunkorren zenbakiak ematea.
 - Kautela-neurri bezala, erasotzaileari armak kentzea.
 - Biktimari autobabesari buruzko neurrien berri ematea.
 - Biktimari laguntzea.





Atestatua egiten duen unitateak beharrezko neurriak hartuko ditu, agintaritza judizialarekin batera, bermatze-ko gaia ebatzi behar duen agintaritza judizialaren aurretik (guardiako epaitegia edo, hala badagokio, emakumeen kontrako indarkeriaren epaitegia) igaroko direla biktima edo bere legezko ordezkaria, salatua edo us-tezko erasotzailea eta lekuko posibleak, babes-agindua edo bestelako babes- eta segurtasun-neurriak eskatze-ko dokumentuan ezarritako irizpideen arabera.

3. Jarduketaren amaiera:

- Emakumeen kontrako indarkeriari lotuta poliziaren aurrean aurkeztutako edozein salaketa edo eskatutako edozein babes-agindu berehala tramitatu eta bidaliko zaio, premiazko edozein bide seguru erabilita, agintaritza judizialari, poliziaren atestatuarekin batera.
- Atestatu osoa entregatzea bideraezina denean, salaketa edo babes-aginduaren eskaria bidaliko dira, ordura arte jasotakoarekin batera.
- Biktima DBABera eta erabilgarri dauden zerbitzu asistentzialetara bideratzea.
- Polizia-unitate esku-hartzaileak informazio guztia emanen die uneoro agintaritza judizialari, fiskaltzari eta, dagokionean, DBABi, ezagutzen dituen gertakari orori buruz, abiarazitako babes-neurrien edukari edo irismenari eragin badiezaiekete.





GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA INTEGRALA EMATEKO TALDEAK (BAIT)

Genero-indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldeak (BAIT) Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren mende daude eta esku hartzeko zerbitzu ireki bat dira. Beraien xedea da genero-indarkeriaren egoeran dauden emakumeei edo horren biktima izateko zantzuak dituztenei informazioa eta laguntza era integralean ematea, bai eta beren ardurapean dituzten seme-alabei eta pertsoneri ere.

Lau BAIT daude funtzionamenduan gizarte-zerbitzuen alorrean: Tuteran, Lizarran, Tafallan eta Iruña/Nafarroako ipar-ekialdea/Nafarroako ipar-mendebaldea.

Lantalde horietako kideak gizarte-langileak, psikologoak, gizarte-hezitzaileak eta administratzaileak dira. Aholkularitza juridikoa dagokion barruti judizialeko Abokatutza Elkargoetako ELZek emango du.

1. Eskaera jasotzea:

BAITera, oro har, udaleko gizarte-zerbitzuek edo harre-ra-baliabideek bidalita iristen dira emakumeak. Hala ere, emakumea zuzenean joan daiteke bertara, edo komunitateko beste zerbitzu batzuek ere bideratuta ere irits daiteke zerbitzu honetara. Arreta-ordutegia goizez eta arratsaldean izan ahal da.

2. Arreta profesionala:

Emakume bat BAITera joaten denean, gizarte-langile batekin bilduko da aurrena, eta hark egoeraren eta eskariaren lehen balorazio bat egingen du. Abiapuntu horretatik emakumearekin adosten da zer jarduketara mota egingen den. Hori informazioa eta orientazio sozial edo juridikoa emate hutsa izan daiteke (ELZen bidez) edo arreta-prozesu integral bat izan daiteke. Kasu honetan, diagnostikoa egin ondoren, esku hartzeko plan pertsonalizatu bat diseinatuko da. Planteatutako helburuak lortzeko BAITek honako hauek eskaini ditzake:

- Gizarte-arreta. Baliabide eta prestazioei buruzko informazioa eta horiek lortzeko kudeaketak.
- Arrisku-egoera zehaztea, esku hartzeko premia hobeto baloratzeko.
- Koordinazioa eta, egokia bada, ELZera edo harre-ra-baliabideetara bideratzea.
- Koordinazioa eta gizarte-, osasun-, kultura- edo hezkuntza-zerbitzuetara bidertzea, besteak beste.
- Salaketa jartzen laguntzea.
- Banako eta taldeko terapia.
- Banako eta taldeko terapia seme-alabentzat.
- Familia-unitatearentzako hezkuntza arloko arreta.
- Inguruabar bereziak dituzten talde eta kolektibo zehatzentzako arreta berezitua (batik bat emakume etorkinak edo desgaitasunen bat dutenak).

Esku-hartzea aldi berean behin ebaluatzen da.

3. Esku-hartzearen amaiera:

Kasua ixteko arrazoiak hauek dira:

- Esku hartzeko planean finkatutako helburuak betetzea.
- Emakumeak bere borondatez plana uztea.
- Emakumeak bizilekua aldatzea eta, ondorioz, gizarte-zerbitzuen beste eremu batean geratzea.
- Bere beharrei hobekiago erantzun dion beste zerbitzu batera bideratzea emakumea.





INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI HARRERA EGIN ETA ALDI BATERAKO BIZILEKU SEGURUA ESKAITZEKO BALIABIDEAK

Baliabide hauek Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren (NABI) mende daude. Hauexek dira:

Larrialdi-zentroa

Harrera-etxea

Egoitza etxebizitzak

1. Larrialdi-zentroa:

Larrialdi-zentroa zerbitzu espezializatua da; indarkeria-egoeran dauden emakumeei eta haiekin bizi diren seme-alabei berehalako eta aldi baterako harrera egiten die, beren segurtasun pertsonala bermatzeko. Doakoa da eta egunean 24 orduz dago irekita, urteko egun guztietan.

Egonaldia astebetekoa da, eta hilabetera luza daiteke.

1.1. Eskaera jasotzea

Baliabide hau erabili ahal izateko, 112 SOS Nafarroara deitu behar du emakumeak edo Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde Arteko III. Akordioaren erakunde sinatzaileetako batek (oinarizko gizarte-zerbitzua, osasun-zentroa, epaitegia, polizia edo beste bat).

Baldintzak:

- a) Nafarroan erroldatua egotea eta emakumeak pairatu duen eraso Nafarroan gertatu izana. Nafarroatik kanpoko emakumeak hartu ahal izanen dira, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak eta haien seme-alabak hartzeko zentrozen sareak koordinatzeko autonomia-erkidegoen arteko deribazio-protokoloaren arabera.

- b) Emakumeak gaixotasun mentala badu, diagnostikatua eta medikuak kontrolatua egon beharko du. Hala ez bada, posible izanen da sarbidea ukatzea, baliabide honetan ez baitago nahikoa baliabide patologja horiek tratatzeko.
- c) Ezin izanen dira baliabidera sartu drogak modu aktiboan kontsumitzen ari diren emakumeak.
- d) Ez da beharrezkoa erasotzailearen kontrako salaketa aurkeztea.

1.2. Arreta profesionala:

– Sartzeko erabakia:

Emakumeak zentroan onartzeko ardurua baliabidea kudeatzeaz arduratzen den talde teknikoarena da.

– Emakumea zentrorra eramatea:

Emakumea lehen aldiz etortzen denean, polizia bakarrik lagunduta eginen du beti.

– Zerbitzuak ematea:

- Harrera.
- Koordinazioa beste zerbitzu esku-hartzaile batzuekin.
- Informazioa eta aholkularitza.
- Laguntza psikosoziala.
- Beste baliabide batzuetara bideratzea.

2. Harrera-etxea:

Harrera-etxea egonaldi ertainerako bizilekua da, indarkeria sufritu duten emakumeek eta haien karguko adingabeek indarrak berreskuratzeko.

Arretako eta/edo indarberritzeko tratamendu integrala eskaintzen da, alor psikologikoak, soziolaboralak eta juridikoak barne hartuta, emakumeen ahalduntzea eta autonomia osoa sustatzeko eta, dagokionean, berarekin bizi diren eta mendekotasun ekonomikoa duten seme-alaben indarberritzea.

Doakoa da, eta gehieneko egonaldia sei hilabetekoa da (luzatu daiteke).

Baliabidea erabiltzeko prozedura hauxe da:





- Harrera-baliabideak kudeatzen dituen lantalde teknikoak, larrialdi-zentroan jaso duten emakumearekin batera, harrera-etxean sartzea komenigarria den baloratuko dute.
- Erakunde arteko III. Akordioaren erakunde sinatzailleetako edozein zerbitzua ere (oinarrizko gizarte-zerbitzua, osasun-zentroa, epaitegia, polizia edo beste bat), emakumearekin batera, erabaki dezake harrera-etxean sartzea komenigarria den edo ez.
- NABlra bidalitako eskaera formal eta informatua.
- NABIk dokumentazioa aztertuko du eta harrera-etxean gehienez ere 6 hilabetez egoteko baimena eman edo ezesteko ebazpena emanen du.
- Epe hori amaituta, harrera-baliabideak kudeatzen dituen lantalde teknikoak egonaldia amaitzeko edo luzatzeko eskatuko dio NABlri, eta hark ebazpena emanen du.
- Harrera-etxetik behin betiko joaterakoan ere kudeaketa berdina egiten da, hots, lantalde teknikoaren eskaria eta NABlren ebazpena.

- Gutxieneko sarrera ekonomikoak izatea.
- Etxebizitza ez edukitzea.

Baliabidea erabiltzeko prozedura hauxe da:

- Harrera-baliabideak kudeatzen dituen lantalde teknikoak, larrialdi-zentroan jaso duten emakumearekin batera, egoitza etxebizitzan sartzea komenigarria den baloratuko dute eta formalki eskatuko diote NABlri, horretarako idatzitako txosten baten bidez.
- NABIk dokumentazioa aztertuko du eta harrera-egoitza etxebizitzan egoteko baimena eman edo ezesteko ebazpena emanen du.
- Epe hori amaituta, lantalde teknikoak egonaldia amaitzeko edo luzatzeko eskatuko dio NABlri.
- Egoitza etxebizitzatik behin betiko joaterakoan ere kudeaketa berdina egiten da, hots, lantalde teknikoaren eskaria eta NABlren ebazpena.

3. Egoitza etxebizitzak:

Bost etxebizitza dira, etxebizitza-eraikin arruntetan kokatuak, Iruñeko Iruñerriko hainbat auzotakoak.

Doako bizilekua dira, eta harrera-etxeko egonaldian emakumeekin egindako esku-hartze integralaren plana luzatzen dute. Beharrezkoa da adostutako helburuak bete izana eta emakumeak etxebizitza bat lortzeko zailtasunak izatea. Egoitza etxebizitzaren helburua da emakumearen eta heren seme-alaben gizarteratzea erraztea, eta bere bizitza modu independente eta autonomoan eta indarkeriarik gabe garatzeko aukera ematea.

Gehieneko egonaldia urtebetekoa da. Epe hori beste sei hilabetez luzatu ahal izanen da, teknikarien irizpidearen arabera.

Sartzeko baldintzak:

- Harrera-etxeko helburuak bete izana.
- Erasotzailearengandik legez bananduta egotea, edo hori tramitatzen egotea.





EMAKUMEEI LAGUNTZA JURIDIKOA EMATEKO ZERBITZUA (ELZ)

Foru Komunitate guztian dago ezarria, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak eta Iruña, Tuter, Lizarra eta Tafallako Abokatutza Elkargoek sinatutako hitzarmenaren bidez.

Emakumeei doako informazio- eta aholkularitza-zerbitzu bat eskaintzen die, bai eta abokatuaren laguntza eta asistentzia ere, salaketa jarri aurretik eta emakumeen kontrako indarkeriarekin lotutako prozedura judizial eta administratibo guztietan ere.

Zerbitzu hauek ematen dituzte:

Guardiako asistentzia-zerbitzua, uneoro lokalizatua.

Aholkularitza-zerbitzu orokorra.

1. Guardiako asistentzia-zerbitzua, uneoro lokalizatua:

1.1. Eskaera jasotzea:

Guardiako zerbitzura egindako telefono-deia, 112 SOS Nafarroatik, polizia-indarrengandik edo epaitegietatik.

1.2. Jarduketa profesionala:

- Emandako telefonora deituko da eskaria zein den jakiteko.
- Adierazitako lekura joango dira ordezkariak.
- Erasoja jasan duen emakumearekin lehen harremana ezarri ondoren, beharrezko neurriak hartuko dira frogak lortzeko, horiek edonolakoak izanik ere (osasunekoak, polizialak, perituen edo lekukoaren bidezkoak, edo zuzenbidean onartutako beste edonolakoak).

- Aurrez aurre jakinaraziko zaio zer eskubide dituen, bai eta eskura dituen baliabide sozial, juridiko eta ekonomikoak ere.
- Polizia-etxean edo guardiako epaitegian salaketa aurkeztuz gero, arreta berezia eskainiko zaio hori prestatzeari, datuak, inguruabarrak, gertakariaren lekukoak eta abar nabarmenduz, ohikoa izan litekeelako.
- Legez ezarritako babes-neurriak eskatuko dira.
- Biktimak eskatzen duenean, Nafarroako Gobernuaren Larrialdi Zentrorako sarbidea emanen zaio.
- Abokatu profesionalek doako asistentzia juridikoa eskatzeko inprimakiak emanen dizkiete emakumeei. Era berean, horiek lortzeko baldintzak zeintzuk diren jakinaraziko diete, bai eta, biktima izaera galduko balute, ordainsariak eta eskubide ekonomikoak ordaintzeko betebeharra ere.
- Asistentzia juridikoak familia-epaitegiko esku-hartze bat eragiten badu, abokatu ofizios izendatzeko tramitazioa zigor-arloko berbera da.
- Ondorengo ekintzetarako, zerbitzuak ahaleginak egingen ditu abokatu bakar batek zuzendu ditzan guztiak.

1.3. Jarduketaren amaiera:

Premiazko jarduketa bakoitzean honako hauek egiten dira:

- Bertaratze-akta eta fitxa estatistikoa.
- Fitxa pertsonalizatua. Hori osatzen joanen da jarduketa gehiago egin ahala, eta kasu bakoitzean adierazi beharko dira data, esku hartzen duen abokatu eta esku-hartzearen arrazoia, labur-labur.

1.4. Zerbitzua emateko modua

Guardiako zerbitzua (berehalako asistentzia juridikoa), Abokatutza Elkargo guztietan eskaintzen da, egunean 24 orduz eta urteko egun guztietan, guardia lokalizatuaren bidez. Salaketa jaso den edo indarkeria matxistako kasu bat izan den lekura joanen da ordezkari bat berehala.





2. Aholkularitza-zerbitzu orokorra:

2.1. Eskaera jasotzea:

Honako hauekin lotutako informazio-eskaerei erantzuten zaie:

- Zuzenbide zibila: familia-zuzenbideari eragiten dioten gaiak (filiazioa, bikotearen eskubideak eta betebeharrak, gurasoen eskubide eta betebeharrak seme-alabekiko, ezkontzaren araubide ekonomikoak, deuseztasun-, banatze- eta dibortzio-prozesuekin lotutako gaiei buruzko informazioa edo izatezko bikoteen prozedura baliokideekin lotutako informazioa).
- Zigor-zuzenbidea: emakumearen kontrako indarkeria, pentsioak ez ordaintzea, babes-aginduak, etab.
- Laneko zuzenbidea: emakumezko langileen eskubideak eta betebeharrak eta genero-arrazoien-gatiko diskriminazio posibleetatik eratorritako gaiak.

2.2. Zerbitzua emateko modua

Zerbitzua genero-indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldeen egoitzetan emanen da, lanegunetan, aurretik hitzordua eskatu eta gero:

Iruña/Nafarroako ipar-ekialdea/Nafarroako ipar-mendebaldeko eremuko BAIT.

Lizarrako eremuko BAIT.

Tafallako eremuko BAIT.

Tuterako eremuko BAIT.

Iruñean, aholkularitza-zerbitzua Iruñeko Abokatutza Elkargoan emanen da, astelehen, asteazken eta ostiraletan, 16:30etik 18:30era, uztailan eta abuztuan izan ezik, hilabete horietan goizeko ordutegia egonen baita, 10:00etatik 12:00etara.



DELITUAREN BIKTIMEN ARRETARAKO BULEGOA (DBAB)

Nafarroako Delituaren Biktimen Arretarako Bulegoa (DBAB) Nafarroako Gobernuako Justizia Zuzendaritza Nagusiko Justizia Zerbitzu Sozialaren mendeko zerbitzu bat da. Alor juridiko, psikologiko, sozial eta administratiboko langile kualifikatuak osatzen dute, eta delitu baten biktima izan diren pertsonen arreta integrala emateko sortu zen. Horretarako, giza eskubideen defentsaren alde egiten da eta Europako herrialdeetan biktimei arreta emateko ezarri diren irizpideak betetzen dira.

Hiru jarduera-esparru ditu: soziala, juridikoa (ELZekin elkarlanean) eta psikologikoa.

Sei esku-hartze mota egiten dira:

1. *Guardiako psikologia-zerbitzua.*
2. *Biktimaren arrisku-mailaren balorazio psikologikoa.*
3. *Premiazko esku-hartzea, erasotzailearen ezaugarriak bereizteko.*
4. *Programa terapeutikoak delituaren biktimekin.*
5. *Banako eta taldeko terapia-programak familia-eremuko erasotzaileekin.*
6. *Datuak hartzea eta tratatzea babes-aginduei dago-kienez.*

1. Guardiako psikologia-zerbitzua:

Psikologia-lantaldea antolatu egiten da, guardia-txanda baten bidez, psikologia-arreta urteko egun guztietan ziurtatu eta bermatzeko, Nafarroa osoan eta egunean 24 orduz.

1.1. Eskaera jasotzea:

112 SOS Nafarroatik guardiako telefonora deituta.

Eskaera delitu baten (dagokigun kasuan, emakumeen kontrako indarkeriaren) biktima batekin esku hartzen ari diren epaitegiek, polizia-indarrek, fiskaltzak eta abarrek eska dezakete.

1.2. Arreta profesionala:

- Guardiako psikologoa biktimari arreta ematen ari zaizkion lekura (normalean, polizia-etxeak edo guardiako epaitegia) joanen da, ahal bezain azkar.
- Guardiako esku-hartze psikologikoak hainbat bide har ditzake:
 - Laguntza aktiboa sintoma emozional desorekatuak dituen biktimari, salaketa jartzeko eta asistentzia psikologikoa emateko horiek murriztea beharrezkoa denean.
 - Banako elkarrizketa biktimarekin eta material psikometrikoaren erabilera.
- Salaketa jarri eta gero, biktimari etortzeko eskatuko zaio, hartu beharrek datu guztiak jasotzeko eta informazio teknikoa biltzeko, honako hauek egin ahal izateko:
 - Zer arrisku-mailatan dagoen aztertzea eta hitzez jakinaraztea lortutako emaitzak poliziari edo instrukzio-epaileari, premiazko babes-neurri egokiak ezartzeko.
 - Hautatutako galdetegiak aplikatzea biktimari buruzko informazio objektiboa izateko eta prozesu penal guztian zehar duen bilakaera aztertzeko.

1.3. Jarduketaren amaiera:

- Esku-hartzea amaitzen denean, DBABera biktimaren txosten psikologiko bat igorriko da, 24 orduko epean, gehienez ere.
- Egokia bada, txosten psikologiko hori instrukzio-epaitegira ere bidaliko da, poliziak egindako atestatuan edo dagokion kasuaren instrukzioan txertatzeko.



1.4 Jarraipena:

Guardiako esku-hartzea egin eta hiruzpalau egun beranduago telefonoz deituko zaio biktimari, jarraipena egiteko. Deia ren helburua izanen da biktima nola dagoen jakitea, jarduera sozial eta terapeutikoak eskaintzea eta Nafarroako Delituaren Biktimei Arreta Emateko Bulegoari buruz emandako informazioa osatzea edo berrestea.

2. Biktimaren arrisku-mailaren balorazio psikologikoa:

2.1. Eskaera jasotzea:

Zerbitzu psikologikoa instrukzio-epaitegira edo guardiako epaitegira eta polizia-etxera joateko eskaria 112 SOS Nafarroa telefonora deituta egin daiteke bakarrik. Deia leku hauetatik egin daiteke:

- Epaitegia
- Polizia-etxea edo -kuartela.

2.2. Arreta profesionala:

- Guardiako telefonoan deia jaso eta gero, psikologoa epaitegira edo polizia-etxera joanen da ahal bezain azkar.
- Epaitegian erasotzailearen balorazioa egin behar bada, psikologoak foruzainen laguntza izan dezake (egokitzat jotzen bada) esku-hartzea amaitu arte.

2.3. Jarduketaren amaiera:

Balorazio-elkarrizketa amaitu ostean, ahoz jakinaraziko emaitzak instrukzio-epaileari edo poliziari.

Erasotzailearen, biktimaren ala bien egoera baloratzeko eska daiteke.

3. Premiazko esku-hartzea, erasotzailearen ezauzgarriak bereizteko:

3.1. Eskaera jasotzea:

112 telefonora epaitegi eskatzailetik egindako deia.

112 telefonoaren operadoreen bidez, posible da guar-

diako psikologia-zerbitzuarekin zuzenean harremanetan jartzea, egunean 24 orduz eta Nafarroa guztian.

3.2. Arreta profesionala:

- Guardiako psikologoa deitu duen epaitegira joanen da.
- Erasotzailearekin elkarrizketa egiten denean, foruzainak bertan egonen dira, zaintza-lanetan, horretarako prestatutako bulego batean.

3.3. Jarduketaren amaiera:

Premiazko lehen ebaluazio hori amaitzen denean, eskatzaileari lortutako emaitzen berri ematen zaio.

4. Programa terapeutikoak delituaren biktimekin:

4.1. Eskaera jasotzea:

Honako hauek bideratu dezakete biktima:

- Arreta eman dion DBABeko lantalde psikologikoa.
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta auzoko unitateak.
- Polizia-indarrak
- Guardiako epaitegiak, fiskaltzak.
- ELZ (Emakumeari laguntzeko zerbitzua)
- Beste erakunde ofizial batzuk.
- Osasun-zentroak.
- Herritarrei informazioa emateko bulegoak.
- Abokatu partikularrek.
- Beste profesional batzuk.
- Zerbitzuak arreta emateko moduko biktimekin hainbat esparrutan lan egin ohi duten GKEak.
- Zerbitzuak biktimaren berri izateagatik.

4.2. Arreta profesionala:

Eskaintzen den arreta biktima bakoitzaren berezko inguruabarren arabera izanen da. Sailak, besteak beste, jarduera hauetako batzuk egin ahalko ditu:

- Biktimei harrera egitea eta laguntza emozionala ematea, beren beharren arabera. Arreta psikologikoa ematea eta baliabide terapeutiko espezia-





lizatueta bideratzea. Premiazko asistentzia psikologikoa ere emanen da, beharrezkoa denean.

- Zuzeneko edo zeharkako biktimei informazio eta aholkularitza juridikoa ematea sufritu duten delituari buruz, gehienbat salaketak jartzera bideratuta (horien edukia eta forma eta epaitegian ematen zaien tramitazioa).
- Erabilgarri dauden baliabide sozialei buruzko orientazioa eta informazioa eta koordinazioa beste baliabide espezializatu batzuekin. Jarraipen soziala.
- Delituaren ondorioz eskuratu litzaketan laguntza ekonomikoari eta horien tramitazioari buruzko informazioa.

EZ DA BEHARREZKOA BIKTIMAK SALAKETA JARRI IZANA ARRETA JASO AHAL IZATEKO.

4.3. Jarduketaren amaiera:

Jarraipena eta kontrolerako kontsultak.

5. Banako eta taldeko terapia-programak familia-eremuko erasotzaileekin:

5.1. Eskaera jasotzea:

- Neurri judizialen aplikazioagatik.
- Terapian hasteko irizpideak betetzea

5.2. Arreta profesionala:

- Tratamendu pertsonalizatuak garatzea, pertsona bakoitzaren behar espezifikoari erantzuteko prestatutakoak, taldeko saioekin txandakatuz.
- Programa terapeutikoa luzea da (lau hilabete gutxienez), elkarrengandik gertu dauden jarraipenerako kontrol erregularrekin, urtebetez edo bi urtez.
- Ikuspegi errealista bat du abiapuntu: emakumeen kontrako indarkeria erabili duten erasotzaileek ez dute onartzen arazo bat dutenik eta arazoak sortzen dituztenik eta, horren ondorioz, ez dute

berezko motibazioerik jarrera oldarkor horik aldatzeko.

Erasotzaileentzako tratamendu-programaren helburuak hauexek dira:

- Tratu txarrak jaso dituen emakumearen segurtasuna bermatzea.
- Etorkezuneko Indarkeria-egoerak prebenitzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren zabalpena galaraztea.

Programa terapeutikoak banakoak dira, eta taldeko saioak ere badituzte.

6. Jarduketa babes-aginduekin.

Datu-base bat izatea; bertan, epaitegiek agindutako babes-aginduak erregistratuko dira, bai eta horietako intzidentziak ere.





EMAKUMEEI LAGUNTZEKO UDAL ZERBITZUAK

IRUÑEKO UDALAREN EMAKUMEARI LAGUNTZEKO UDAL ZERBITZUA (ELUZ)

Beharrezko jarduketak egiten ditu gizarte-zerbitzuen alorrean Iruñeko udalerrian, 8:30etik 14:30erako ordutegian, lanegunetan. Ordutegi horretatik kanpo eta jaiegunetan, eskaerak 112 telefono-zenbakian jasoko dira, eta horrek zerbitzu honi pasatuko dio informazio ahal bezain laster.

1. Eskaera jasotzea:

Ezinbesteko baldintza da Iruñean bizitzea.

Asistentzia-eskaera bi bidetatik jaso daiteke:

- Kaltetua.
- Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde Arteko Akordioaren erakunde sinatzaileetako batek bideratuta (auzoko unitateak, osasun.zentroak, epaitegiak, polizia-indarrak eta beste).

Honela egin daiteke:

- Telefonoz eta zerbitzuaren bulegoan bertan hitzordua eskatuta.
- Hitzordurik gabe zuzenean bulegora joanda eta berehalako arreta jasota, egoera premiazkoa dela jotzen bada.

2. Eskaeraren arreta profesionala:

2.1. Lehen hitzordua egitea. Oro har, honako hau egiten da:

- Eskaria jasotzea.
- Egoera baloratzea.

2.2. Kasua lantaldeko profesional bati esleitzea. Esku hartzeko plan indibidualizatu bat prestatzea.

2.3. Erabiltzaile beraren kasuan esku hartzen ari diren beste baliabide batzuekin koordinatzea. Honako hauekin egiten dira koordinazioak normalean:

- Auzoko unitateak.
- Laneratze- eta promozio-programak.
- Genero-indarkeriaren biktimei harrera egiteko baliabideak.
- ELZ (Emakumeari laguntzeko zerbitzua)
- Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutua
- Osasun zerbitzuak

2.4. Informazioa itzultzea biktimatik bideratu duen zerbitzu edo baliabideari, egindako esku-hartzeari buruz.

3. Jarduketaren amaiera: planteatutako helburuak lortzen direnean.

EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO UDAL ZERBITZUAK NAFARROAKO BESTE UDALERRI BATZUETAN

Nafarroako beste udal batzuk aholkularitza psikologiko eta/edo juridiko espezializatua eskaintzen dute emakumeen kontrako indarkeria-kasuetan eta beste egoera batzuetan: Altsasu, Atarrabia, Barañain, Berriozar, Lizarran, Noingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen mankomunitatea eta Zizur Nagusia.





LEHEN MAILAKO ARRETA/ OSASUN-ZENTROAK

Lehen mailako arretako profesionalak jarduteko jarraibide batzuk dituzte kontsultan edo osasun-zentroan indarkeria egon daitekeelako susmoa dutenean.

1. Eskaera jasotzea:

Eragindako emakumea osasun-zentrora joaten da, asistentzia soziosanitarioa eskatuz.

2. Arreta-prozesua:

- Elkarrizketa, emakumearen kontrako indarkeria dagoelako susmoa dagoenean edo egiaztatuta dagoenean.
- Lesioan miaketa eta balorazioa.
- Berehalako arriskuaren balorazioa.
- Alderdi mediko-legalak.
- Osasun- eta gizarte-baliabideak.
- Beti presente izatea emakumearen kontrako indarkeria-kasu bat izan daitekeela, horrela aurkeztu ez arren. Adi egotea gomendatzen da, eta tratatu txarrei buruzko galderaren bat egitea ere.
- Tratu txarrei buruzko galdera erraz eta zuzenak egitea, eta familiako beste kide batzuek ere (seme-alabak) tratatu txarrik jaso duten deskubritzen saiatu. Susmoa baldin badago hitzordua emanen zaie, aukera hori egiaztatzeko.
- Arriskua baloratzeko protokoloa aplikatzea:
 - Arriskua ertaina/txikia denean:
 - Emakumeari zerbitzu eta baliabide juridiko, polizia eta sozialei buruzko informazioa ematea.
 - Txosten bat egitea, emakumeari emateko, nahi badu, eta historia informatikoan gordetzeko.
 - Gizarte-langileengana edo beste zerbitzu batzue-

tara bideratzea, emakumearen balorazio bateratua egin ondoren. Adingabeen edo mendeko pertsonen edo desgaitasuna dutenen kasuan, balorazio bateratua eginen dute gizarte-langileek eta lehen mailako arretako eta pediatriako lantaldeek.

- Lesioen txostena bidaliko zaio guardiako epaitegira emakumearen balorazio bateratua egin eta gero.
- Babesa eta laguntza emanen zaizkio hartzen dituen erabaki guztietan.
- Jarraipen/laguntzako kontsultarako hitzordua emanen zaio. Arriskua berrebaluatzea beti.

– Arriskua handia denean:

- Emakumearen bizi arriskuan jar dezaketen kasu larrietan, baldin eta zentroan bertan berehalako arreta eman behar bazaio, asistentzia medikoa eman behar zaio lesioetan, eta miaketa mediko oso bat egin behar zaio.
- 112tik edozein baliabide mobilizatzen da (polizia, epaitegia, premiazko arreta psikologikoa, ospitalera edo larrialdi-zentrora edo harrera-etxera laguntzea). (Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean arreta integrala eta koordinatu emateko protokoloaren eskaintzaren arabera).
- Ez utzi inoiz emakumeari erasotzailearekin bakarrik joaten kontsultatik.
- Ez ahaztu segurtasuna dela lehentasuna.





GINEKOLOGIA ZERBITZUA (IRUÑEKO OSPITALEGUNA, TUTERAKO REINA SOFIA OSPITALEA ETA LIZARRAKO GARCIA ORCOYEN OSPITALEA)

Sexu-erasoen eta/edo bortxaketen biktima izan diren emakumeei arreta ematen zaie ospitaleko baliabide honetan, beste kasu batzuen artean.

1. Eskaera jasotzea

Biktima zerbitzura etortzen denean:

- Bakarrik egon daiteke, sexu- eta ugalketa-osasunerako arreta-zentroetatik, osasun-zentroetatik, ospitalez kanpoko larrialdi-zerbitzuetatik edo larrialdi orokorretarik bideratuta.
- Abokatuak edo poliziak lagunduta egon daiteke.

2. Arreta profesionala:

- Oinarrizko anamnesia eginen da.
- Guardiako auzitegiko medikuari jakinaraziko zaio (sailaketa egon ala ez).
- Poliziarik ez badago auzitegiko medikuak abisua pasatuko dio poliziarari.
- Anamnesi xehatua eginen da.
- Miaketa fisikoa eginen da eta frogak jasoko dira:
 - aztarna biologikoak jasoko dira geroago ikertzeko.
 - miaketa ginekologikoa eginen da.
 - miaketa fisikoa eginen da, lesioak hautemateko, gorputz guztian.
- Koordinazioa eginen da Osasunbideko gainerako larrialdi-zerbitzuekin, beharrezkoa bada.
- Auzitegiko medikuak laginak eramango ditu, bai eta gainerako frogak ere (arropa, etab.).

- Larrialdiko kontrazepzioa emanen zaio emakumeari.
- Medikuen txostena eginen da.
- Lesioen partea eginen da (kopia bat historia klinikoan artxibatuko da, eta bestea epaitegira bidaliko da fax bidez).

3. Jarduketaren amaiera:

- Hitzordua emanen zaio hurrengo egunean bere sexu- eta ugalketa-osasunerako arreta-zentroan, STlen analitika eta ondorengo jarraipena egiteko.
- Genero-indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko lantaldearekin harremanetan ipintzen lagunduko zaio eta horien telefonoa emanen zaio.





LARRIALDI ZERBITZUA (IRUÑEKO OSPITALEGUNA, TUTERAKO REINA SOFIA OSPITALEA ETA LIZARRAKO GARCIA ORCOYEN OSPITALEA)

Indarkeria fisikoa jasan duten emakumeei arreta ematen zaien premiazko izaerarekin ospitaleko baliabide horietan.

1. Eskaera jasotzea:

Biktima hainbat eratan irits daiteke:

- Bakarrik, sexu- eta ugalketa-osasunerako arreta-zentroetatik, osasun-zentroetatik edo bestelako zerbitzu batzuetatik bideratuta.
- SOS 112k bidalita, anbulantzian.
- Abokatuak edo poliziak lagunduta.

Sexu-eraso bat jasan duela erraten badu eta miaketa ginekologikoa egin behar zaiola erabakitzen bada, ginekologiako larrialdi-zerbitzura bideratuko da.

Gainerako lesio fisiko/psikikoen kasuan prozedura estandarren arabera jokatzeko da.

2. Arreta profesionala:

Kalte eta lesio fisiko eta psiko posibleentzako arreta:

- Ordu-tegi iraunkorra: 24 h/ 365 egun
- Medikuaren txostena berehala egitea.
- Lesioen txostena betetzea, diagnostikoa eta pronostikoa adierazita.
 - Kopia bat larrialdi-zerbitzuak gordeko du, historia klinikoan jasota.
 - Bestea epaitegira bidaliko da fax bidez.

Behar bezala identifikatutako poliziak eska dezakete, polizia judizialaren jardunetan.

3. Jarduketaren amaiera:

Larrialdi-zerbitzuko arreta profesionala amaitu egiten da:

- Emakumeak ospitaleko zerbitzu batean ospitaleratzen dutenean. Auzitegiko medikuari jakinarazi ohi zaio, kasuaren berri izan dezan eta egoki den bezala jardun dezan.
- Emakumeak alta jasotzen duenean: txosten zehatz bat entregatuko zaio.

Ohikoa da pazienteak gizarte-langileengana bidaltzea, hala ospitaleko langileekin harremanetan jarrita nola bere osasun-zentroko profesionalaren kontaktua emanez.





PROZEDURA JUDIZIALA

1. Prozeduraren hasiera:

- Poliziaren atestatuan jasotako edo partikular batek edo fiskaltzak zuzenean epaitegian aurkeztutako salaketaren ondorioz.
- Salaketarik egon gabe ere, delitu izan litezkeen egintzak egjatzatzen direnean egindako atestatuaren ondorioz.
- Medikua txostenaren edo partikularren lekukotza- ren ondorioz, beste organo judizial batek bidalita.

2. Epaitegiaren lehen eginbideak:

- Poliziak hitzordua emanen die zuzenean biktimari eta ustezko erasotzaileari epaitegira joan daitezen (edo atxilotutako ustezko erasotzailea eramango du). Bertan, deklarazioa aurkeztuko dute emakumearen kontrako indarkeriaren epaitegian berehala eta, ahal bada, lekukoek ere gauza bera egingen dute. Ezin bada atestatu aurkeztu asteburuan, edo gertaerak asteburuan gertatzen direnean, atestatuak guardiako epaitegira bidaliko dira, eta bertan egingen dira lehen eginbideak, kautela-neurriren bat hartzen beharrezkoa denean.
- Eginbideak abiarazita, biktimaren azterketa medikoa egiten du auzitegiko medikuntza zerbitzuak, beharrezkoa dela jotzen bada (eta ospitalera eramaten da emakumea ospitaleratzea beharrezkoa bada).
- Ikertuak emakumearen kontrako indarkeriagatiko aurrerariak dituen aztertuko da, bai eta orduan salaketa-jartzailearen aldeko babes-neurriak ezarri ziren ere. Horiek Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Erregistroaren bidez edo genero-indarkeriari buruzko funtzioak dituen epaitegiaren aginduz hartuko ziren.
- Fiskaltzari prozeduraren hasiera jakinaraziko zaio, deklarazioetan eta ondorengo eginbideetan parte hartzeko aukera izan dezan, eta galdetuko zaio prozeduran aurretiko eginbideen edo premiazko eginbideen izapidea jarraituko den.

- Biktimari beharrezko informazioa eta laguntza emanen zaio, hala alor psikologikoari (Justizia jauregian dagoen Delituen Biktimei Arreta emateko Bulegoaren bidez) nola tekniko-juridikoari dagokienez. Era berean, egokia izan daiteke emakumea Delitua- ren Biktimei Arreta emateko Bulegora bideratzea, edo indarkeria-egoeran dauden emakumeentzako larrialdi-zentrora (bizilekua izan dezan), eta oro har informazio xehatua emanen zaio Foru Komunitatean indarkeriaren eta/edo sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntzeko dauden baliabideei buruz, dagoen organo judizialak egingen dituelarik egoki diren komunikazioak.
- Eginbideen barruan sartuko da, kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera egoki jotzen denean, usteko erasotzaileari buruzko peritu-txostenak egitea, arriskuari, alderdi psikologikoei, egoera sozialari eta abarri buruz. Txosten horiek egiten dira, beren funtzioen esparruaren barruan (guardiako auzitegiko psikologia edo gizarte-zerbitzuak), egokia bada neurri hauek hartzeko: neurri penal edo zibilak, babes-aginduei lotuta; Genero Indarkeriaren kontrako Babes Neurrien Legean ezarritako biktimentzako babes- eta segurtasun-neurriak; prozesu penal batean har litezkeen kautelazko eta segurtatzeko beste edozein neurri (kartzela, etab.).
- Poliziari aginduko zaio ikerketa- eta segurtatze-eginbideak egitea, beharrezkoa den frogei dagokienez.
- Biktimak babes-agindua eskatu duen egiaztatuko da, eta hala bada dagokion pieza irekiko da alderdiak deklaratza deitzeko eta eskariari erantzun bat emateko, hura aurkeztu eta ondorengo 72 orduetan.

3. Salaketa aurkeztea:

- Tratu bereziki zaindua eman behar zaie delitu hauen biktimei. Posible den heinean, eta instalazio judizialen egoera kaskarra ikusita, ahaleginak egingen dira salatutako pertsonak eta biktimak elkarrekin topo ez egiteko, eta eragiten dieten ebazpenak ahal bezain azkar jakinaraziko dira.
- Biktimari asistentzia tekniko-juridikoa emanen zaio,





doako asistentzia-juridikoari buruzko araudian aurreikusita baliabide eta mekanismoak erabilia.

- Deklarazioa epailearen aurrean eginen da beti, abokatuaren laguntzarekin eta, beharrezkoa bada, asistentzia psikologikoarekin. Deklarazioa ahoz eginen da, eta transkribatu eginen da. Ahalik eta xehatuena izanen da, eta lotura hertsia izanen du salaketa eragin zuten gertakariekin, horren inguruabarrekin, lekukoan, medikuaren txostenen edo bestelako proben existentziarekin, aurreko erasoekin, babes-neurriari buruzko biktimaren iritziekin eta eskariarekin, salatutako egintzari dagokionez esanguratsuak diren salatuaren inguruabar pertsonalekin eta gertakariaren ikerketarako garrantzitsua den guztiarekin. Edonola ere, komenigarria litzateke deklarazioak ikus-entzuzko formatuan filmatzea, esandakoa ahalik eta hobekien jasotzeko eta biktimak erabilitako hitzezkoa ez den hizkera ere gordeta izateko. Beti da egokia hori, baina are gehiago gisa honetako delituetan, osagarri emozionala oso indartsua baita.
- Biktimei jakinaraziko zaie ikertuaren kontra ez deklaratzeko eskubidea dutela, PKLren 416. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. Salatuaren deklarazioa:

- Ikertu bezala, bere abokatuaren laguntzarekin, deklarazioa emanen du honako hauei buruz: salatutako gertakariak, horiei buruzko bere bertsioa, kasurako esanguratsuak izan daitezkeen inguruabar pertsonalak (droga-mendekotasuna, alkoholismoa, etab.), eta, egokia baldin bada, bere kontra hartu beharreko kautela-neurriari buruz duen iritzia. Edonola ere, bere eskubideen berri emanen zaio, gertakariari buruzko deklaraziorik ez egiteko eskubidea barne.

5. Kautela-neurriak hartzea, babes-neurria eskatu bada:

- Dagozkion entzunaldiak deitu eta egin ostean, epaileak auto baten bidez ebatziko du kautela-neurri zibil zein penalak hartzea egokia den.

- Babes-aginduko neurriak eman edo ezesten dituen autoa behar bezala arrazoitua eta oinarritua egonen da, kasu zehatzari dagokionez.

Hartutako kautela-neurriak aurrez aurre jakinaraziko zaizkie biktimari eta ikertuari; hartutako neurrien errekerimendu eta ohartarazpenarekin batera eginen da hori.

ETXeko INDARKERIAREN BIKTIMAK BABESTEKO AGINDUA

Zer da?

Babes-agindua legezko tresna bat da, biktima etxeko indarkeriatik (hau da, legez zehaztutako familia-gunearen barruko indarkeriatik) babesteko diseinaturia.

Horretarako, babes-aginduak berehala ematen den ebazpen judizial batean bateratzen ditu izaera penal eta zibileko neurriak. Legeak ezartzen duenez, agindu hori erabil dezake biktimak edozein agintaritzaren eta administrazioaren aurrean, eta horrela errazagoa izanen zaio bere aldeko asistentzia eta babes sozialeko mekanismoak aktibatzea, Estatuak, autonomia-erkidegoek eta toki-administrazioek ezarritakoak. Babes-agindu bat ezartzeko prozedura bereziki sinplea eta azkarra da, biktimari berehalako babesa eskaini ahal izatera bideratuta.

Zer egoeratan ematen dira babes-aginduak?

Bizitzaren, osotasun fisiko edo moralaren, sexu-askatasunaren, askatasunaren edo segurtasunaren kontrako delitu edo falta bat egin den kasuetan, biktimarentzako **arrisku** egoera objektibo bat dagoenean eta horren ondorioz Legean aurreikusitako babes-neurriak hartzea beharrezkoa denean.

Izapidetzea

Organo judizialak (guardiako instrukzio-epaitegia edo emakumearen kontrako indarkeriaren epaitegia) babes-aginduaren eskaria jaso ostean, entzunaldi bat emanen zaie biktimari edo haren legezko ordezkariari, eskatzaileari, abokatuaren laguntza izanen duen iker-





tuari eta fiskaltzari, eskaria jaso eta hurrengo 72 ordue-tan. Agerraldi horren ondoren, epaileak auto bat eman-go du agindua emateko edo ezesteko, bai eta zer neurri hartzen diren zehazteko.

Babes-aginduko neurri penalen aurkako errekurtsioa aurkez daiteke haiekin ados ez egotekotan. Babes-agin-duko neurri zibilen kontra ezin daiteke errekurtsorik aur-keztu, baina 30 egun baliioduneko indarraldia baino ez dute, epe horren barruan dagokion prozedura zibila aurkezten bada. Kasu horretan, babes-aginduko neurri zibilen luzapena agintzeko aukera dago.

Babes-aginduko neurriak

Babes-agindua emateak babes integral bat eskaintzen dio etxeko indarkeriaren biktimari. Bertan kautela-neurri penal eta zibilak sartuko dira, bai eta ondorengo alo-rretan ezarritako asistentzia eta babes sozialeko beste neurri batzuk ere:

a. Babes penala:

Biktimaren segurtasuna lortzeko helburua duten neurri penal batzuk dira.

Epaileak beharrezkotzat jotzen badu, gertakarien la-rritasunaren eta biktimaren babes integralerako be-harraren arabera, legeria prozesal penalean aurrei-kusitako edozein kautela-neurri hartu ahal izanen du (gerturatzeko debekua, etxean geratzeko debekua, komunikatzeko debekua edo beste edozein neurri mota).

Babes-agindua betetzen dela kontrolatzeko eta ja-rraipena egiteko mekanismo egokiak ezarri dora era berean, batik bat biktimaren segurtasunari dagokio-nez. Alor horretan esanguratsua da segurtasun-indar eta -kidegoen esku-hartzea, eta horretarako talde horiei jakinaraziko zaie ebatzitako agindua haren be-rrri izan dezaten eta haren aplikazioa zaindu dezaten, eta errequisitoriak igorriko dira.

Babes-agindua inskribatuko da Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Erregistroan.

Neurrietako bat hausten badu, inputatuaren askata-

sun pertsonala are gehiago murriztuko duten kau-tela-neurriak ezarri ahal izanen dira, kautela-neurria haustearen delitua egiteagatik izan lezakeen erantzu-kizunaren kalterik gabe.

b. Babes zibila:

Guardiako instrukzio-epaileak edo emakumearen kontrako indarkeriaren epaitegikoak behin-behineko neurri zibilak agin ditzake. Neurri horiek biktimak edo bere legezko ordezkariak eska ditzake, edo fiskaltzak, adingabeak diren edo gaitasun nahastua duten seme-alabak badaude.

Neurri zibilak hauek izan daitezke, besteak beste: familia-etxebizitzaren erabilera eta gozamina es-leitzea; seme-alabak zaintzeko, bisitatzeko, horiekin komunikatzeko eta eurekin egoteko araubidea ze-haztea; mantenua emateko araubidea ezartzea, eta arriskutik aldentzeko edo kalteak saihesteko ego-kitzat jotako best edozein xedapen.

Neurri horiek behin-behinekoak dira eta horien inda-rraldia 30 egunekoa izanen da. Neurri horiek iraun bitartean familia-prozesu bat hasiko balitz, hartutako neurriak salaketa aurkeztu eta ondorengo 30 egune-tan luzatuko lirateke, eta prozedura zibileko eskume-na duen epaileak berretsi, aldatu edo indargabetu beharko lituzke.

Era berean, beste neurri batzuk ere har daitezke, Emakumeen kontrako Indarkeriaren buruzko 1/2004 Lege Organikoaren 65. eta 66. artikuluetan xeda-tutakoaren arabera, hala nola guraso-ahala etetea, adingabeen zaintza etetea, akusatuaren mendeko adingabeen bisitak, egonaldiak eta komunikazioa etetea edo harrera, tutoretza, kuradoretza edo egita-tezko zaintza etetea. Adingabeen eta emakumearen osotasuna, segurtasuna eta indarberritzea bermatze-ko neurriak ere gar daitezke, bilakaeraren jarraipen periodikoarekin. Ohiz kanpo, familiaren etxebizitza-ren erabilerearen trukea ere agin daiteke.



Gizarte-babesa

Onartutako babes-aginduak biktimarentzako babes- eta asistentzia-tresna guztiak aktibatuko ditu, administrazio publikoek ezarritakoak (Estatua, autonomia-erkidegoak eta toki-erakundeak).

Emandako babes-aginduak gaikuntza emanen du babes sozialeko neurriak erabiltzeko.

Horretarako, babes-agindua jakinaraziko die epaitegiak babes-neurriak abiarazi behar dituzten administrazio publikoei. Nafarroan, Delituaren Biktimei Asistentzia emateko Bulegoa da koordinazio-zentroa.

Emandako laguntzen iraupena, edukia, irismena eta indarraldia administrazio bakoitzak ezarritako irizpideen arabera emanen dira, eta betiere kontuan izanik biktimaren beharrak eta bere familiaren inguruabarrak.

Bestalde, adierazi behar da babes-agindua ordenamendu penalaren barruan kokatzen dela, biktimak babestua izateko duen eskubideari dagokionez. Ordenamendu horrek ezartzen du, lehenik eta behin, izaera orokorrek, posible dela egoki jotzen diren neurriak ezartzea biktima edozein delitutatik babesteko, eta zehazkiago posible dela etxebizitzako, hurbiltzeko eta komunikatzeko debekuak ezartzea delitu larriagoen kasuan.

Ordenamendu horretan arautzen da ere behin-behineko espetxealdia, larritasun jakin bateko zigorra duen delitua egin izanaren zantzuak eta alderdi akusatzailearen eskaria izanik horretarako baldintzak. Hainbat helbururekin egin daiteke hori: justiziatik ihes egitea saihestea, inputatuak justizia oztopatzea edo delitua berriz egiteko aukerarik ez ematea. Azken helburu hori lortzen da biktimaren babes orokorrek eta, zehazkiago, xede bezala agertzen da ere behin-behineko espetxealdiaren kasuan: inputatuak biktimaren ondasun juridikoen kontra jardutea galaraztea, batik bat etxeko indarkeriaren biktima denean. Kasu horietan ez da behin-behineko espetxealdirako izaera orokorrek ezartzen den gutxieneko zigorraren baldintza aplikatzen.

Azkenik, Genero Indarkeriaren kontrako Babes Integralerako Neurrien Legeak babes handiagoa eskaintzen dio emakumeari bere bikotekideak edo bikotekide ohiak

(berarekin ezkondua dagoen edo egon den gizona, edo afektibotasun-maila baliokideko harreman batean dagoena edo egon dena) eragindako indarkeriari dagokionez. Lege horrek asistentzia sozial integrala eta asistentzia juridikoa jasotzeko aukera aitortzen du, eta biktimen babes eta segurtasunerako neurri judizialak ezartzen ditu era berean. Neurri horiek bateragarriak dira prozesu penal edo zibiletan ezar daitekeen beste edozein kautela- edo segurtatze-neurriekin, eta batik bat babes-agindu batekin. Neurri bezala ezar daitezke honako hauek: datuen babesa eta publizitate-mugak, etxetik ateratzea, urruntzea eta komunikazioak etetea, guraso-ahala edo adingabeen zaintza etetea, bisita-erregimena etetea, armak izan eta eramateko eskubidea etetea. Neurri horiek guztiak babes-agindurako legez ezarritako prozeduraren bidez ezar daitezke eta, halakorik ez badago edo baldintzak ez betetzeagatik onartu ezin badira, auto arrazoitu baten bidez ezarriko dira, fiskaltzaren parte-hartzearekin eta kontraesanaren, entzunaldiaren eta defentsaren printzipioekin bat. Edonola ere, lerrokada honen hasieran aipatutako lege-ria prozesal penal orokorraren arabera neurriak hartzeko aukera beti mantenduko da.





ATENPRO. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA ETA BABESA EMATEKO TELEFONO BIDEZKO ZERBITZUA

ATENPRO zerbitzuan gailu mugikor bat ematen zaie genero-indarkeriaren biktimei. Horri esker, edozein unetan jar daitezke harremanetan genero-indarkerian espezializatutako langileek osatutako zentro batekin. Larrialdi-egoeretan, zentroko langileak prestatuta daude planteatutako krisiari erantzun egokia emateko, bai beren kasa bai beste giza baliabide eta baliabide material batzuk mobilizatuz. Gainera, arreta-zentrotik aldian behin harremanetan ipiniko dira zerbitzuaren erabiltzaileekin, beren egoeraren jarraipen iraunkorra egiteko eta berreskuratzeko prozesu integralean zehar haien aldamenean egoteko.

Zerbitzua kudeatzeko, haren titularra den Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak urtero izenpetzen du hitzarmen bat Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioarekin. Interesa duten udalek eskari bat aurkeztu behar ute zerbitzura atxikitzeko. Nafarroan Udalak eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak arduratzen dira behar duten erabiltzaileentzako ATENPRO zerbitzua baloratu eta eskatzeaz.

Espainiako Gurutze Gorriak kudeatzen du zerbitzu hau, hala estatu mailan nola Nafarroan.

Zerbitzu hau genero-indarkeriaren biktimei diren emakumei zuzentzen zaie, Genero Indarkeriaren kontrako Babes Integralerako Neurrien abenduaren 28ko 1/2004 Legearen 1.1 artikuluan jasotako terminoetan: «*Lege honen xedea da indarkeriaren kontra egitea, indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo haiekin horren antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitarrak ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonen emakumei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa*».

Era berean, zerbitzua erabili ahal izanen dute ere erabiltzaileen seme-alabek, gizarte-zerbitzuen/berdintasun-zerbitzuen zentroek egokia dela uste dutenean eta berreskuratzeko prozesu integralean parte hartzen ari direnean.

Zerbitzua eska dezakete baldintza hauek betetzen dituzten genero-indarkeriaren biktimek:

- Tratu txarrak eragin dizkion pertsonarekin edo pertsonekin ez bizitzea.
- Autonomia-erkidegoaren lurraldean dauden genero-indarkeriaren biktimentzako arreta espezializatuko programetan parte hartzea.
- Zerbitzuaren funtzionamendu-arauak onartzea.

1. Eskaera jasotzea:

ATENPRO telefono-zerbitzua bizilekuaren arabera dagozkion gizarte-zerbitzuetan edo berdintasun-zerbitzuetan eskatzen da.

Eskaeran eskatzaileak sinatutako konpromiso bat aurkeztuko du, zerbitzuaren funtzionamendu-arauak onartzeko, eta baimen bat, sinatuta hori ere, bere datu pertsonalak arreta-zentroko fitxategi automatizatuetan txertatzeko (15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera), bai eta horien tratamendu automatizatua egiteko ere, gerta litezkeen larrialdi-egoeretan behar bezalako arreta eman ahal izateko.

Eskaera jasotzen eta kudeatzen duen zerbitzuak, erabiltzeko baldintzak eta kasu zehatz horretarako egokitasuna egiaztatu ondoren, ATENPROko alta-eskaera helaraziko dio zerbitzua ematen duen erakundeari (Gurutze Gorria).

Zerbitzua ematen duen erakundeak egiaztatuko du inprimakiak behar bezala bete direla eta erabiltzaileei zerbitzua ematen hasiko zaie, eskaera jaso eta zazpi egun naturaleko epean, gehienez ere. Terminala erabiltzaileari emango dio, eskaria kudeatu zuen gizarte-zerbitzuen edo berdintasun-zerbitzuen zentroan.





Zerbitzuko ohiko altak

Prozedura honen bidez babes-agindua edo indarreko urruntze-agindua duten genero-indarkeriaren biktimen eskarien tramitazioari egiten zaio erreferentzia.

Era berean, prozedura honen bidez tramitatzen dira ere jarraian azaltzen diren arrazoiak direla-eta babes-agindua edo urruntzeko neurria ez daudeneko kasuak:

- Urruntzeko neurriaren edo zigorraren indarraldia amaitu delako.
- Prozesu judizial hori ez erabiltzea erabaki delako.

Zerbitzuko ezohiko altak

Prozedura honen bidez salaketarik aurkeztu ez duten biktimen eskarien tramitazioari egiten zaio erreferentzia. Kasu horietan, zerbitzua emanen zaie, ohiz kanpo eta aldi baterako, gainerako baldintza guztiak betetzen dituztela frogatzen duten emakumei.

2. Arreta profesionala:

Lau komunikazio mota daude. Horietako bakoitzak jarduteko prozedura propioa dauka:

- a) Erabiltzaileek arreta-zentrora egindako deiak. Erabiltzaileek nahi adina alditan deitu dezakete arreta-zentrora, betiere deiak genero-indarkeriarekin harremana badu. Arreta-zentroak beren eskariei erantzuteko baliabide egokienetara bideratuko ditu emakumeak.
- b) Arreta-zentroak erabiltzaileei egindako deiak, egoeraren jarraipena egiteko eta babesa eta konfiantza transmititzeko.
- c) Larrialdietako deiak:
 - Arreta psikosozialeko eskaria: Genero-indarkeriaren ondoriozko krisi-egoeretan arreta eskatzeko deiak.
 - Aurrealarmak: Erabiltzaileak egindako deiak, erasotzailea gertu dabilela edo arriskutsua izan daitekeen egoera bat dagoela hautematen duenean.

- Erasoagatiko alarma: Erabiltzaileak egindako deiak, jakinarazteko eraso bat sufritzen ari dela edo eraso bat berehala gerta daitekeela.

d) Sistemaren kontrol teknikorako komunikazioak.

3. Jarduketaren amaiera:

Urtebetez eskainiko da zerbitzua. Alta-datatik urtebetera baloratuko da erabiltzaile guztiak zerbitzua jasotzen jarraitu behar duten.

Zerbitzuan baja emateko kausa izanen dira:

- Erabiltzaileak zerbitzua uztea erabakitzea, espresuki eskatuta.
- Erabiltzaile izateko baldintza bat betetzeari uztea.
- Erabiltzaileak behin eta berriz ez betetzea zerbitzua eman ahal izateko ezinbestekoa diren lankidetzako obligazioak.

4. Udalerrri-aldaketa:

Erabiltzailea beste udalerrri batera joaten bada bizitzera, hilabeteko epean bizileku berriko gizarte-zerbitzuen edo berdintasun-zerbitzuen zentrora joan beharko du, bertan zerbitzuko alta berrets dezaten.

Erabiltzailearekin izandako elkarrizketetan agerian geratzen bada bizilekua aldatu duela, ATENPRO zerbitzuak jakinaraziko dio zer prozedura jarraitu behar duen.





FAMILIA ELKARGUNEAK

Familia-elkarguneak (FE) Nafarroako Gobernuaren zerbitzu bat dira. Haien xedea da gurasoen eta adingabeen arteko harreman programatuak eta bisitak egiteko espazio neutral bat eskaintzea, profesionalen laguntzarekin, banatze- edo dibortzio-prozesuetan murgilduta dauden familientzat, edo familiako edo bizilekuko harreman haurrak hartu dituztenentzat.

FEren hartzailerak dira banatzerakoan gertakari horrek eragindako minari nolabaiteko intolerantzia dioten eta banaketa prozesu bezala ulertzeko zailtasunak dituzten bikoteak; banaketaren aurrean arrisku argiak dituzten haurrak; eta gurasotasunaren betebeharrak betetzeko arazo argiak dituzten gurasoak.

HELBURUAK:

- Ume/nerabeen eta egunerokotasunean beraiekin bizi ez den gurasoaren arteko topaketa ahalbidetzea, interferentziarik gabe eta espazio seguru batean.
- Haien emozioak entzutea, eustea eta haien aldamean egotea.
- Adingabeen eta gurasoen arteko harremanak hobetzeko hezkuntza-pautak ematea.
- Egituratzeko afektiboaren prozesu bat abiaraztea, harremanetan esperientzia berriak txertatzen joateko.
- Guraso-funtziorako laguntza ematea horren forma guztietan, eta aitaren eta amaren arteko gurasotasun partekatua sustatzea.

SARBIDEA:

Zerbitzu honen sarbidea Gizarte Eskubideen Lehendakariordetzaren Familia eta Adingabeen Zuzendariordeztza eta epaitegiak dira (familia-gaietakoak, emakumearen kontrako indarkeriarenak, lehen auzialdikoak eta instrukziokoak).

Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen 41. artikulua xedatzen duenez, FEetan landuko dira emakumearen kontrako indarkeria-kasuak, babes-neurri polizial edo judizial bat aplikatzea erabaki bada eta esparru judizialetik horrela ebatzi bada.

EMATEN DUEN ZERBITZUA:

- Adingabeak jaso eta entregatzea.
- Gainbegiraturako bisitak.





ERANSKINAK

1. ZENTZUMENETAKO DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN ARRETA ETA KOMUNIKAZIOA BERMATZEKO BALIABIDEAK

Nafarroako Gorren Elkarte. ASORNA

Zeinu-hizkuntzaren interpretazio-zerbitzua eskaintzen du, zeinu-hizkuntzaren erabiltzaileen eta ahozko hiztunen arteko komunikazio-oztopoak gainditzeko Foru Erkidegoan.

Zerbitzua eskatzeko prozedura:

- Eskaera emakumeak berak egin dezake, bai eta edozein esparrutan arreta ematen dioten erakunde eta profesionalak ere.
- Eskaera asorna@asorna.org helbide elektronikora idatzi egin daiteke, edo 948 25 71 62 telefonora deituta, datu hauek emanez:
 - Laguntza jasoko duen pertsonaren izena
 - Zerbitzua emateko data, ordua eta lekua
 - Gutxi-gorabeherako iraupena eta asistentziaren gaia

Entzuteko desgaitasuna duten pertsonen familien Nafarroako elkarte. EUNATE

Zeinu-hizkuntzaren interpretazio-zerbitzua eskaintzen du, zeinu-hizkuntzaren erabiltzaileen eta ahozko hiztunen arteko komunikazio-oztopoak gainditzeko Foru Erkidegoan.

Zerbitzua eskatzeko prozedura:

- Eskaera emakumeak berak egin dezake, bai eta edozein esparrutan arreta ematen dioten erakunde eta profesionalak ere.
- Eskaera asociacioneunate@eunate.org helbide elektronikora idatzi egin daiteke, edo 948 26 18 77 telefonora deituta, datu hauek emanez:

- Laguntza jasoko duen pertsonaren izena
- Zerbitzua emateko data, ordua eta lekua
- Gutxi-gorabeherako iraupena eta asistentziaren gaia

2. INTERPRETATIO ETA BITARTEKARITZA KULTURALERAKO BALIABIDEAK HIZKUNTZA EZAGUTZEN EZ DUTEN EMAKUME ATZERRITARRENTZAT.

Hizkuntza- eta kultura-bitartekaritzako zerbitzua

Nafarroako Gobernuaren Gizarte Eskubideen Departamentuak martxan jarritako baliabide bat da. ANAFE, Gurutze Gorria eta Secretariado Gitano Fundazioak kudeatzen dute, eta Nafarroa guztian eskaintzen da.

Bitartekariak jarraian azaltzen diren esku-hartzeak egin ditzake:

- Ahozko hizkuntza-laguntza, emakumearen hizkuntzan, emakumeak eta profesionalak elkar ulertu ahal izan dezaten.
- Idatzizko hizkuntza-laguntza lege-baliarik gabeko dokumentu txikiak itzultzeko eta ulermena errazteko.
- Erakundeak edo profesionalak emakumeari helarazi nahi dizkion mezuak transmititzea eta interpretatzea, beste alderdiak mezua ulertzeko moduan.
- Informazioa ematea, jokabidean edo gertakari pertsonal, familiar edo sozialetan eragina duten jarraimoldeak eta faktore kultural, sozial eta familiarak azaltzea, eta kasurako esanguratsuak diren herrialde eta kulturei buruzko informazioa ematea.

Jatorri- eta hizkuntza-profil hauetarako bitartekari profesionalak daude eskura garri:

Latinoamerika: Ekuador/Kolonbia

Magreb: Maroko

Saharaz hegoaldeko Afrika: Ghana/Senegal

Ekialdeko Europa: Bulgaria/Errumania





Zerbitzua hizkuntza hauetan eskaintzen da:

Ingelesa, frantsesa, arabiera, bulgariera, errumaniera, errusiera, alemana, portugesa eta wolofera.

Herritarrei oro har eta esparru guztietako profesionali (gizarte-zerbitzuak, osasungintza, hezkuntza/pres-takuntza, alor juridiko-administratiboa, aisialdia, etxebi-zitza, lana...) zuzentzen zaie.

Jarduteko prozedura

1. Zerbitzua eskatzea

Entitate kudeatzaileetako batera jo behar da zuzenean, telefonoz edo posta elektronikoz. Anafek eskaintze du zerbitzua Nafarroa iparraldean, eta Gurutze Gorriak Na-farroa hegoaldean:

- **ANAFE**

Telefonoa: 948-136078

mediación@anafe-cite.org

- **Nafarroako Gurutze Gorria**

Telefonoa: 948-827450

mediacionnav@cruzroja.es

- **Secretariado Gitano Fundazioa**

Telefonoa: 948-382680

mediacionnavarra@gitanos.org

2. Eskaera jasotzea

Esku-hartzearen ordua eta lekua adosten dira, eta emakumeen kontrako indarkeriarekin lotutako eskariak eta esku-hartze azkar bat behar dutenak lehenesten dira.

3. Arreta profesionala

Arreta aurrez aurrekoa edo telefono bidezkoa izan daiteke, eta behar adina aldiz eska daiteke.

4. Jarduketaren amaiera

Jarduketa esku-hartzearen helburua lortzen denean amaitzen da.



